

elikadura ohituren dibertsitatea munduan

Landutako edukiak	Gure elikadura-ohituren dibertsitatea, Munduko elikadura-ohitura ezberdinak, Giza-eskubideak, Elikagai paketatutak, Erosketa-ohitura jasagarriak.
Gomendatutako adina	8-12 urte.
Ikasgaiak	Natur Zientziak, Matematika, Gizarte Zientziak, Balio etikoak, Gaztelania, Atzerriko hizkuntzak.
Metodologiak	Ikerketa, Eztabaida gidatua, Hausnarketa, IKT.
Egilea	Kopin Elkarte (Euskal Fondoak egokitua)
Oinarrizko gaitasunak	1, 2, 3, 4, 5 / A, B, C, E, F
Ikasketa-helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Munduan dauden askotariko jateko estiloak aztertzea. • Familien tamaina desberdinen jakitun izatea. • Gure elikadura ingurumenaren eta egoera ekonomikoaren eraginpean dagoela konturatzea. • Janariaren nutrizio-balioari buruz modu kritikoan pentsatzea. • Karbono-aztarna kontuan izanda, gure janariak ingurumenean duen eraginaz jabetzea.

1. saioa (60')

NATUR ZIENTZIAK, MATEMATIKA

GURE ELIKADURA-OHITUREN INGURUKO IKERKETA

1.1 GURE FAMILIEN JANARI-EROSKETARAKO OHITURAK I



Ikasleei etxean aldez aurreko ikerketa bat egiteko eskatuko diegu. Ikerketa horretan, ikasle bakoitzak beren familian elikagaiak erosteko dituzten ohiturak idatziko dituzte. Txostenean aste arrunt batean erosten dituzten produktuak agertu beharko dira, gramotan edo kilogramotan adieraziak: arroza, pasta, ogia, fruta, barazkiak, haragia, esnekiak, gozoak, eta abar.



PRODUKTUA	KOPURUA
Arroza (Kg)	
Haragia (Kg)	
Esnea (L)	
...	

1.2 GURE FAMILIEN JANARI-EROSKETARAKO OHITURAK II



Jasotako datuekin elikagai bakoitzaren batez beste-koak kalkulatu beharko dituzte eta bertako kontsumo tipikoa erakusten duen barra-diagrama bat egiteko eskatuko diegu. Amaitzeko, galdera hau luzatuko diegu hausnarketa sustatzeko:



- Zer motatako janaria erosten dute zuen familiek maizenik edo kantitate handienetan?




1.3 GURE FAMILIEN JANARI-EROSKETARAKO OHITURAK III



Elikadura-piramidea errepasatzeko ordua izango da (oraindik egin ez bada, horretarako aukera ona izan daiteke). Taldean zein bakarka, elikadura-piramide bat marraztu beharko dute eta elikagai horiek dagozkien tokietan jarri beharko dituzte. Amaitzeko, galdera hau luzatuko diegu hausnarketa sustatzeko:



- Zer elikagai dira osasungarriak?
- Zer dakar berarekin dieta osasungarri bat egiteak?



<http://naturagurebizitza.blogspot.com/>

2. saioa (50')

NATUR ZIENTZIAK, GIZARTE ZIENTZIAK, BALIO ETIKOAK

MUNDUKO ELIKADURA-OHITURA DESBERDINEN AZTERKETA

2.1



ETA ZER JATEN DA MUNDUKO BESTE LEKU BATZUETAN?

Munduko beste leku batzuetan jaten dena aztertzeko, herrialde desberdinetako familien argazkiak erakutsiko dizkiegu ikasleei. Bertan astebetean jaten dutena ikusi ahal izango dute.

OHARRA

Herrialde bakoitzak astero xahutzen duen dirua eta beste herrialde batzuetako adibideak:

https://cribeo.lavanguardia.com/estilo_de_vida/2256/dime-de-donde-eres-y-te-dire-que-comes



AUSTRALIA



ERRESUMA BATUA



CHAD



EKUADOR



EGIPTO



ITALIA



JAPONIA



MALI



TURKIA



AEB

2.2



ELIKADURA-OHITURA EZBERDINEN INGURUKO HAUSNARKETA

Ikasleen artean hauxe nabarmendu eta eztabaida gidatua sustatuko dugu:

- Jendeak joera handiagoa du tokiko janaria jateko "garapen-bidean" dauden herrialdeetan.
- Herrialde gehienek elikagaiak inportatu eta esportatu egiten dituzte: horri salerosketa deritzo.
- Dieta-mota bakoitzaren jatorria herrialde edo eskualde horretan ekoitz daitezkeen produktuetan datza.
 - Gutxi ekoizten bada, janaria inportatu egin beharko da (eztabaidagai izan daitezke: urruneko elikagaiak, paketatzea).
 - Herrialde aberatsek mundu osotik elikagaiak inportatzeko gaitasun handiagoa dute (urruneko elikagaiak); herrialde txiroetan, aldiz, sarritan bertan landatu dezaketen horretara mugatuta egoten dira (barazkiei eta frutei dagokienez).

Amaitzeko, taldeka edo ikasgela osoa batera, etxean dituzten jateko ohituretatik hurbilen dagoen argazkia zein den eztabaidatuko dute.



EKINTZA OSAGARRIA

Etxean premiazko elikagaiei buruzko ikerketa bat egitea proposatu daiteke. Horrez gain, paketatutako elikagaien abantailei eta desabantailei buruzko ideiak sar daitezke ikerketan.

3. saioa (20')

NATUR ZIENTZIAK

ELIKAGAI PAKETATUAK: ZEIN DESABANTAILA DITUZTE?

3.1



ELIKADURA-OHITURA DESBERDINEN INGURUKO HAUSNARKETA

Ikasleei elikagai paketatuen desabantailei buruz galdetuko diegu. Hauek dira ikasleek eman ditzaketen erantzun batzuk:

- Ez dira egin berriak.
- Ez dira bertakoak (ez diote laguntzen tokiko ekonomiari).
- Hondakin gehiago sortzen dute.
- Sarritan ez dira hain osasungarriak; azukre, gatz eta osagai artifizial asko izaten dituzte ezkutuan.
- Karbono-aztarna handiagoa eragiten dute, urruneko elikagaiak direlako.

Erantzun hauek eman ezean, horien inguruko galderak proposatu daitezke.

4. saioa (?)

NATUR ZIENTZIAK, GIZARTE ZIENTZIAK, BALIO ETIKOAK

EZAGUTZEN ZABALPENA. IKASLE-EKIMENA


4.1



EZAGUTZEN ZABALPENA PRESTATZEN INFOGRAFIEN BIDEZ

Ikasleak taldetan banatu eta talde bakoitzari infografia bat egitea eskatuko diegu. Taldeek gai hauek dituzte aukeran jorratzeko:

- Munduko elikadura-ohituren saioko eztabaida gidatuan egindako hausnarketa.
- Elikagai egin berrien eta paketatuen arteko desberdintasuna. Aurreko saioan aipatutako arrazoietan oinarrituz, esloganak idatz ditzakete janari egin berriekiko lehenetasuna erakusteko.
- Kultura desberdinetako haurrek dituzten ohiko jan-ohiturak aurkez ditzakete, agian gurasoetako baten laguntzarekin.



4.2



INFOGRAFIEN ZABALPENA

Infografia horiek ikaskideei aurkeztu eta non ipiniko diren adosteko eskatuko diegu: kalean, azokan, eskolako webgunean, etab.

Infografiaren inguruko informazioa:

<https://www.educaciontrespuntocero.com/recursos/paso-a-paso-como-crear-infografias/40695.html>

Infografiak egiteko web orrialdeak:

<https://www.educaciontrespuntocero.com/recursos/herramientas-online-infografias/37194.html>

https://www.canva.com/es_es/

5. saioa (?)

EROSKETA-OHITURA JASANGARRIAK

NATUR ZIENTZIAK, MATEMATIKA, GAZTELANIA, ATZERRIKO HIZKUNTZA

5.1



GURE ELIKADURA-OHITUREN JABETZEA I

Hurrengo egunetan jaten eta edaten duten guztiaren zerrenda bat egiteko eskatuko diegu. Ikasleak hainbat ezaugarri eskaini beharko diete arreta:



- Zein dira tokiko elikagaiak eta zein dira inportatuak?
- Zein dira egin berriak eta zein dira paketatuak?
- Zer elikagai dira osasungarriagoak?
- Kontsumitzen dituzten elikagaiak zer karbono-aztarna uzten dute?



5.2



GURE ELIKADURA-OHITUREN JABETZEA II

Jasotako datuekin ikasleei berriro ere batez bestekoak kalkulatu eta bertako kontsumoa erakusten duen barra-diagrama bat egiteko eskatuko diegu.



5.3



EROSKETA-ZERRENDA JASANGARRIA

Erosketa-zerrenda jasangarri bat idaztea eskatuko diegu ikasleei. Euskara erabilteaz gain, gaztelania edota atzerriko hizkuntzaren batean ere egitea gomendatzen da alfabetatzeko ariketa gisa.



EBALUAZIO TRESNAK ETA IRIZPIDEAK

BANAN-BANAKAKO EBALUAZIOAK

- **Saio guztiak:** Talde-lanetan eta eztabaidetan erakutsitako jarrera.
- **Lehenengo eta bosgarren saioa:** matematika-eragiketak.

TALDEKAKO EBALUAZIOAK

- **Laugarren saioa:** Horma-irudiak edota poster digitalak eta horien aurkezpenak.